

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

167/2023 Foru Agindua, ekainaren 29koa. Azazetako parke eolikoaren plan bereziaren hasierako onespena

2022ko uztailaren 11n, AIXEINDAR SAK eskatu zuen Arabako Foru Aldundiak esku har dezala Azazetako parke eolikoaren plan bereziaren izapidetzean, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 92.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, ez baitago akordiorik eragindako udalerrien artean.

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren uztailaren 26ko 185/2022 Foru Aginduaren bidez, AIXEINDAR SAK formulatutako Azazetako Parke Eolikoaren plan bereziaren eraginpeko udalei hiru hilabeteko epea eman zitzaion akordio bat lortzeko, udaletako batek bere gain har zezan izapidetze eta onspen prozedura.

Akordiorik ez zegoenez, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren azaroaren 8ko 298/2022 Foru Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion plan berezia izapidetzeko prozedurari, bai eta haren ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arruntari ere; espedientea eragindako administrazio publikoei eta interesdunei aurkeztu zitzaion kontsultatzen.

2023ko otsailaren 13an, Arabako Foru Aldundiak plan bereziaren ingurumen azterketa estrategikoaren irismeneko dokumentua eman zuen.

2023ko apirilaren 27an, AIXEINDAR SAK plan bereziaren dokumentua aurkeztu zion Arabako Foru Aldundiari, ingurumen azterketa estrategikoarekin batera, hasierako onspena eman ziezaien.

Aurrekari horiei honako oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

Lehenengoa. Xedea eta edukia

AIXEINDAR SA enpresak sustatutako espediente honen xedea da parke eolika kokatuko den lurzoru eremua eta ezarpen horrek behar dituen zerbitzuak eta instalazioak mugatzea, eta bere eremuan dauden balio naturalak, paisajistikoak, kulturalak, nekazaritza eta abeltzaintzakoak eta basogintzakoak babesteko beharrezkoak diren neurriak ezartzea.

Dokumentuak ondoko eduki hau du:

A dokumentua. Informazio eta justifikazio memoria.

1. eranskina. Nekazaritza sektorearen gaineko eraginaren ebaluazioa.

2. eranskina. Hizkuntza inpaktuaren ebaluazioa.

3. eranskina. Generoaren arabeko eraginaren ebaluazioa.

4. eranskina. Ingurumen jasangarritasunari buruzko txostena.

5. eranskina. Kultura ondarearen azterketa.

B dokumentua. Hirigintza zehaztapenak.

C dokumentua. Informazio eta antolamendu planoak.

D dokumentua. Gauzapena antolatu eta kudeatzeko gidalerroak.

E dokumentua. Ekonomia eta finantza bideragarritasunaren azterlana.

F dokumentua. Gauzapenaren laburpena.

G dokumentua. Ingurumen azterketa estrategikoa.

Bigarrena. Instalazioen deskribapena eta kokapena

Parke eolikoak 5 MW-ko 8 aerosorgailu izango ditu gehienez, 40 MW-ko potentzia eolikoarekin, eta horiekin urtean 104.192 MWh-ko ekoizpen garbia espero da (2.894 ordu baliokide). Horiek eta haien plataformak Bernedoko eta Arraia-Maeztuko udalerrien iparraldean kokatuko dira batez ere, Azazetako mendatetik (A-132) Galartza tontorreraino, eta aerosorgailuen lurgaina eta/edo plataformak okupatu ahal izango dute momentu jakin batzuetan Dulantziko eta Iruraiz-Gaunako udalerriek.

Parke eolikoak sortutako elektrizitatea 30 kV-ko lurpeko zirkuituen bidez bideratuko da Donemiliagako transformazio azpiestazio berrira. Handik, 220 kV-ko aireko linea elektriko baten bidez hustuko da garraio sarera, eta Elgeako azpiestaziora konektatuko da 220 kV-ko goi tentsioko aireko linea baten bidez. Tarte horretan, Iruraiz-Gauna, Donemiliaga eta Barrundia udalerriak zeharkatuko dira.

Laburpen gisa, antolatu beharreko parke eolikoak elementu finko hauek ditu:

- Aerosorgailuak.
- Plataformak.
- Zimenduak.
- Sarbidea.
- Barne bideak.
- 30 kV-ko lurrazpiko linea eta komunikazio sarea eta hura bideratzeko zangak.
- "Donemiliaga SET" transformazio azpiestazioa.
- 220 kV-ko aireko linea.

Hirugarrena. Udal plangintzak

Plan bereziaren xede den lurzoru guztia lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dago eraginpeko udalerrri bakoitzaren plangintzan. Kalifikazioari dagokionez, lurzoru urbanizaezinen eremu eta gaineratutako baldintza hauen barruan dago:

– Bernedoko Arau Subsidiarioak.

Z11 zona. Berroziko area. SEC zona – II zona: Arau subsidiarioetako Z4ri lotzen dio.

C1 baldintza. Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten areak.

C2 baldintza. EAEk ustezko zona arkeologiko izendatutakoak.

– Arraia-Maeztuko arau subsidiarioak.

3. zona. Mendi urriaren babes zona.

4. zona. Mendiko larreen babes zona.

6. zona. Trantsizioko landa paisaiaren babes zona.

9. zona. Babes bereziko zona.

PR. Gainazaleko uren babes zona.

PC. Bide komunikazioen babes zona.

B1 baldintza. Akuiferoen kalteberatasuna.

B2 baldintza. Eremu higagarriak eta akuiferoen kalteberatasuna.

– Dulantziko arau subsidiarioak.

J14. Baso balioko zona.

J17. Gainazaleko uren babes zona.

Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten areen baldintza.

– Iruraiz-Gaunako arau subsidiarioak.

1. zona. Basoen babes zona.

3. zona. Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko babes zona.

4. zona. Babes bereziko zona.

PR. Gainazaleko uren babes zona.

PC. Bide komunikazioen babes zona.

PF.Trenbideko komunikazioen babes zona.

B1 baldintza. Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten eremuak.

B2 baldintza. Natura intereseko eremuak.

– Donemiliagako arau subsidiarioak.

Z1. Babes bereziko zona.

Z3. Baso zona.

Z4. Nekazaritzako eta abeltzaintzako area eta landazabala.

Z5. Gainazaleko uren babes zona.

A1 baldintza. Errepideak.

A3 baldintza. Bide berdea.

D baldintza. Akuiferoen kalteberatasuna.

– Barrundiako arau subsidiarioak.

2. zona. Basoen babes zona.

4. zona. Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko babes zona.

PR. Gainazaleko uren babes zona.

PC. Bide komunikazioen babes zona.

B2 baldintza. Natura intereseko eremuak.

Plan bereziak justifikatzen du parke eolikoa bateragarria dela eremu bakoitzeko erabilera arau-bidearekin eta udalerrri horietako lurzoru urbanizaezinaren gaineratutako baldintza bakoitzarekin.

Laugarrena. Lurralde antolamendua

Plan estrategikoak lurralde antolamenduko tresnekin bateragarria dela justifikatzen du:

– Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak. Proposatutako instalazioak B motako zerbitzu instalazio tekniko ez-linealak dira, lurzoruaren kategoria eta gaineratutako baldintza guztiarako onartutako erabilerakoa. Energia elektrikoa banatzeko erabilera araubide bera ezartzen du. Nabarmenezkoa da parke eolikoa "Vitoria-Gasteizko ekialdeko mendiak" interes multifuntzionaleko espazioarekin gainjartzen dela, eta, 220 kV-ko ebakuazio linearen azken tartean, Elgeako azpiestazioaren ondoan, baita "Aldaiako mendiak" kontserbazio bereziko eremuarekin ere (KBE) (ES2110016). Azken tarte hori, gainera, Aizkorri - Aldaiako mendiak korridorearekin gainjartzen da.

– Araba Erdialdeko lurralde plan partziala (LPP). Ikusi da ez dela berriazko debekurik ezartzen ezarri beharreko instalazioetarako, parke eolikorako eta haiekin lotutako azpiegituretarako, eta, beraz, erabilera onargarritzat jotzen da.

– Energia Eolikoaren lurralde plan sektoriala (LPS). Parke eolikoa 8 haize sorgailuk osatzen dute gehienez; beraz, LPS eolikoaren eremu materialetik kanpo geratzen da, eta haren instalazioa bertako 2.3 artikuluan xedatutakoaren mende egongo da.

– Nekazaritza eta Baso LPS: PBren arabera, aerosorgailuak B motako zerbitzu instalazio tekniko ez-linealak dira, nahiz eta LPS honetan ez dauden jasota aerosorgailuen erabilerak. LAGen irizpideari jarraitzen zaio. Donemiliagako SET A motako zerbitzu instalazio ez-linealtzat hartzen da, eta gainerakoak lurpeko eta aireko lineak dira. Erabilera horiek guztiak onargarriak dira (2a motakoak) eraginpeko kategoria bakoitzean.

– Ibai eta erreka bazterren antolamenduaren LPS. Ezarritako atzeratzeak aplikagarriak izango dira lursail naturala aldatzen duen edozein esku hartzetan, obra publikoetan eta onura publikoko eta interes sozialeko azpiegituren instalazioetan izan ezik. Horregatik, plan bereziak, proiektuaren izaeratik eta onura publikoko azpiegituretat hartzen denez, hasiera batean ez ditu aplikagarritzat jotzen atzeratze horiek. Nahiz eta Donemiliagako transformazio azpiestazio elektronikorainoko (SET) lotura zangaren tarte txiki bat hirigintza garapen berriak izan ditzaketen eremuetako ertzean gainjartzen den, eremu horretarako berriazko araudiak hirigintza garapenerarako betekizunak baino ez ditu ezartzen, eta, beraz, ez dira aplikagarriak.

– Arabako Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen LPS. PBren eremuan 3 bide berde daude. Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeei buruzko urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Arauak, 37. artikuluan xedatzen duenez, “erabilera bereziak edo pribatibo bateragarriak izategatik baimenduta ez dauden erabilerek eta jarduerak baimena edo emakida behar izango dute Toki Erakunde Titularraren partetik. Katalogoan sartutako Ibilbide Berdeak izanez gero, beharrezkoa izango da alde aurretik Foru Aldundian Ibilbide Berdeen gaian eskudun den organoaren aldeko txostena eskuratzea”.

Bosgarrena. Antolamendu proposamena

Bi zonakatze xehatu desberdin ezarri dira, eta bakoitzari dagozkion erabilera araubideak: parke eolikoa eraiki aurreko zonakatzea eta eraiki ostekoa, behin betiko kokapena ezagutu ondoren, eta hori jasota geratuko da ustiatzeko administrazio baimenean.

Aurretiko zonakatzea: Hiru eremu planteatzen dira araubide iragankor batean, parke eolikoa benetan ezarri eta gauzatu arte:

1. zona – Parke eolikoa: Aerosorgailuak ezartzeko lur egokiak, plataformak, aerosorgailuen barneko komunikazio bideak, horiek konektatzen dituen 30 kV-ko lurpeko linea elektrikoa eta komunikazio sarea (kanalizatzeko zanga barne) hartzen ditu. Zona horretan sartzen den lurzorua erabilera nagusia zerbitzu azpiegiturena da, “energia elektrikoa sortzeko parke eolikoko instalazio teknikoena”, eta harekin bateragarriak izango dira eragindako zona bakoitzerako udal plangintzan jasotako erabilera guztiak, betiere erabilera horiek bateragarriak badira instalazioekin edo instalazio horiei atxikitako sorkuntza elektrikoko prozesuarekin, edo instalazioen segurtasun baldintzak aldatzen ez badituzte edo kontuan hartzen ez badituzte.

2. zona – Baso masak babestea: antolamendu eremuan babestu beharreko baso masak dauden zonak dira. Zona hori babesteko helburuak kanpoan uzten du bertan aerosorgailuak eta plataformak ezartzea, debekatutzat jotzen baitira eremu horietan. Zona horretan sartzen den lurzorua erabilera nagusia zerbitzu azpiegiturena da, “energia elektrikoa sortzeko parke eolikoko instalazio teknikoena”, aerosorgailuak eta plataformak ezartzeko aipatutako salbuespenarekin, eta harekin bateragarriak izango dira eragindako zona bakoitzerako udal plangintzan jasotako erabilera guztiak, betiere erabilera horiek bateragarriak badira instalazioarekin.

3. zona – Parke eolikoari lotutako azpiegitura elektrikoak: 30 kV-ko lurpeko linea elektrikoaren tartea ezartzeko eremuak dira, bai eta aerosorgailuak eta azpiestazioa lotzen dituen komunikazio sarea ere, 1. eta 2. zonetatik kanpo daudenak, Donemiliagako SET izeneko transformazio azpiestazioan bertan, instalazioak sortutako energia ebakutzeko. Era berean, instalazioak sortutako energia ebakutzeko 220 kV-ko aireko linea elektrikoaren tartea da, Donemiliagako SETetik Elgeako SETeraino. Beraz, zona horretako lurzoruaren erabilera nagusia zerbitzu azpiegiturena da, “energia elektrikoa sortzeko parke eolikoko instalazio teknikoena”, arestian adierazitako instalazioen modalitatean. Erabilera bateragarriak beste bi zonetan bezala definitzen dira.

Ondorengo zonakatzea:

Parke eolikoaren “eragin zona”: palen luzeraren bikoitza den zabalera duen lur zerrenda da; zerrenda horren ardatza aerosorgailuen lerrokadura izango da. Zerrenda horretan parke eolikoaren babes araubidea aplikatuko da, eta horrek berekin dakar eremu horretako instalazioarekin bateragarriak ez diren jarduerak behin betiko mugatzea, instalazioaren eta jardueraren segurtasuna bermatzeko. Parke eolikoaren babes araubidea aplikatuko zaio zona horri, bi azpizona bereiziz:

- Aerosorgailuen eragin zona.
- Energia elektrikoaren bide-zorrari lotutako zonak.

Eremuko gainerako lurzoru okupatu gabeak eta eragin zonan sartuta ez daudenak: lehengo kalifikazioa eta erabilera araubidea berreskuratuko dute, eta arau subsidiarioetan edo indarrean dagoen plangintza orokorrean ezarritako erabileren erregulazioaren arabera arautuko dira, bertan jarritako mugekin soilik, eta araudi sektorialetatik eta, bereziki, sektore elektriko araudietatik erator litezkeenak eta, segurtasun arrazoiengatik, instalazio eolikoarekiko mugakidetasetatik eratortzen direnak.

Seigarrena. Zuzendu beharreko alderdiak

Bidalitako dokumentazioa aztertuta, honako hau ondorioztatzen da:

MEMORIA (A dokumentua):

1) 8.2.2 apartatua Memorian eta 9. artikulua Zehaztapenetan. 2. zonari dagokionez (baso masak babestea), parke eolikoko zerbitzu azpiegiturak dira erabilera nagusia. Bere izenetik ondorioztatzen denez, erabilera nagusiak “baso masei” dagokiena izan beharko luke, eta idatzizko dokumentazioan adierazitakoa erabilera bateragarri batekin bat etorriko litzateke, baina ez erabilera nagusi batekin, eta alderdi hori zuzendu egin beharko da dokumentuan kontrasesanik edo anbiguotasunik ez sortzeko.

2) 9.1 apartatua. Lurralde antolamenduko tresnak. Plan bereziaren eremuari eragiten dioten LAG, Araba Erdialdeko LPP eta LPS osoa betetzen direla justifikatzen da, Hezeguneen LPS izan ezik. Bete izana justifikatzen duen atal bat erantsiko da.

3) 9.1 apartatua. Lurralde antolamenduko tresnak: LAG eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPS. LAGen arabera, aerosorgailuen eta plataformen erabilerak onargarrizatzat jotzen dira, B motako izaera ez-linealeko instalazio teknikoak baitira. Hala ere, LAGen antolamenduaren ardatzak ezartzen du erabilera hori bateragarria izango dela Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak baimentzen badu. Nekazaritza eta Basozaintzako LPSen, B motako izaera ez-linealeko instalazio teknikoak telekomunikazioekin lotutakoak dira, eta ez dira halakotzat agertzen aerosorgailuak; A motako instalazioen artean, berriz, honako hauek sartzen dira: energia elektrikoa ekoizteko zentralak, biomasatik energia sortzen duten plantak, 100 m²-tik gorako azalera duten transformazio estazioak eta aurrekoen parekoak diren beste batzuk, azaleraren okupazioari dagokionez; beraz, LPSaren arabera, aerosorgailuak A motako izaera ez-linealeko instalazioen parekotzat har daitezke, eta LPSaren ardatzak, mendiko larreetan, horrelako instalazioak debekatzen ditu. Nolanahi ere, adierazi beharra dago lurzoru urbanizaezineko plan bereziek Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen (EHLAB) txostena beharko dutela, eta loteslea

izango dela lurralde eragineko tresnetara egokitzeari dagokionez. Hala ere, "mendiko larreak" kategoriak hartzen duen lurzorua "baso masen babesa" 2. zonan sar liteke, eta "baso masen eta mendiko larreen babesa" 2. zona bihurtuko litzateke, erabilerak egoera horretara egokituz.

4) 8.2.1 eta 9.2.1 apartatuak. Udal plangintza. Jarraian, adierazi edo justifikatu gabeko zonak edo justifikazioa hobetu daitekeen zonak aipatzen dira:

a) Bernedo. C3 – nekazaritza erabilera izan dezaketen areak eta C5 – korridore ekologikoa gaineratutako baldintzak sartuko dira, bai eta horien justifikazioak ere. Esaten da Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) izapidetzen ari dela eta bateragarria dela. Justifikatu egin beharko da, HAPO behin betiko onetsi delako eta plan berezi hau behin betiko onetsi aurretik egongo delako indarrean.

b) Dulantzi. J14 Babes bereziko zona: baso balioa. B motako instalazio ez-linealak aipatzen dira, 1997ko LAGen arabera. Kontuan hartuta 2019ko LAGek gainditu dituztela, non erabilera hori jasota dagoen, onargarriz jotzen da. Esaten da HAPO izapidetzen ari dela eta bateragarria dela. Justifikatu egin beharko da.

c) Iruraiz-Gauna. 4. zona. Babes bereziko zona. Horren justifikazioa osatu egin daiteke Arau Subsidiarioen 202. artikulua, erabilera eta jarduerak planteamendu bereziaren bidez ezartzeari buruzkoa, aplikatuz; izan ere, artikulua horren 1. puntuaren arabera justifika daiteke (izaera hori bateraezina da hiri ingurunearekin, eta, ezinbestean, lursail horretan kokatu behar da, baldintza teknikoek eskatzen dute aukeratutako kokaleku zehatzean kokatzea eta ezinezkoa da babes maila txikiagoko zonetako beste batzuetan kokatzea).

d) Barrundia. B2 gaineratutako baldintza. Natura intereseko eremuak. Horren justifikazioa osatu egin daiteke Arau Subsidiarioen 204. artikulua, erabilera eta jarduerak planteamendu bereziaren bidez ezartzeari buruzkoa, aplikatuz; izan ere, artikulua horren 1. puntuaren arabera justifika daiteke (izaera hori bateraezina da hiri ingurunearekin, eta, ezinbestean, lursail horretan kokatu behar da, baldintza teknikoek eskatzen dute aukeratutako kokaleku zehatzean kokatzea eta ezinezkoa da babes maila txikiagoko zonetako beste batzuetan kokatzea).

Nolanahi ere, hasierako onespeneraren ondoren, sektore eskumenak dituzten administrazio publikoen txostenak eskatuko dira, proposatutako erabilerak guztiz bateragarriak direla baieztatzeko eskatzen diren zona edo gaineratutako baldintzetan: Trenbide Sarearen Plangintza eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusia, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, Trantsizio Ekologikoko Ministerioko Uraren Zuzendaritza Nagusia, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia, Telekomunikazio eta Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuen Antolamenduko Idazkaritza Nagusia, Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztako Sustapen Arlo Funtzionala, URA - Uraren Euskal Agentzia, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza, AFAko Errepide Zerbitzua eta AFAko Nekazaritza Zuzendaritza.

5) 10.1 apartatua. Ondarearen gaineko eraginak. Kendu egingo da Arabako Errioxako ardoaren eta mahastiaren kultura paisaiari erreferentzia egiten dion paragrafoa.

6) 1. eranskina. Nekazaritza sektorearen gaineko eraginaren ebaluazioa. Kartografiari buruzko 1. gehigarria gehituko da.

ARAUDIA (B dokumentua – Hirigintza zehaztapenak):

7) 5. artikulua. 3.2 apartatua. Bernedon C3 – nekazaritza erabilera izan dezaketen areak eta C5 – korridore ekologikoa gaineratutako baldintzak sartuko dira.

8) Dokumentua hobeto ulertzeko, berriaz adieraziko dira parke eolikoa eraiki aurreko zonakatzea (7. artikulua) eta ondorengo zonakatzea (8. artikulua, eragin zona), eta ezarriko da 9. artikuluko erabilera- eta jarduera-araubidea aurretiko zonakatzeari buruzkoa dela, eta parke eolikoaren babes araubidea, berriz, ondorengo zonakatzeari buruzkoa.

9) 12. artikulua. Babes araubide orokorra. b) apartatua Energia elektrikoaren bide-zorrari lotutako zonak. Energia elektrikoa igarotzearen ondoriozko zortasunari buruz baino ez da hitz egiten. Apartatu honetan komunikazio sarearen zortasuna jasoko da.

10) Bi artikulua desberdin daude, 11 zenbakiarekin: "Ingurumenean eragin negatiboak murrizteko neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak" eta "Ingurumen zaintza"; hain zuzen. Artikuluak behar bezala zenbatu behar dira.

IDATZIZKO BESTE AGIRI BATZUK:

11) Ekonomia eta finantza bideragarritasunari buruzko azterlana. Hasierako kostuetan, gauzatze materialari dagozkionak bakarrik hartu dira kontuan. Kostu horiek kontuan hartu behar dituzte kontrataren aurrekontua eta BEZa. Era berean, kontuan hartu ez diren honako hauen kostuak gehituko dira: proiektu teknikoak idaztea, garapen plangintzako tresnen administrazio izapideetan nahitaezkoak diren iragarkiak argitaratzea, kudeaketa gastuak, zortasunek eta desjabetzeek eragindako gastuak...

12) Egikaritze laburpena. Sustatzailea aipatuko da, ez baita jasotzen. Hirigintza bateragarritasunari buruzko 5. apartatuan, Bernedoko arau subsidiarioetako korridore ekologikoaren gaineratutako baldintza sartuko da.

DOKUMENTAZIO GRAFIKOA:

13) Planoetan identifikatu gabeko sinadura bakarra ageri da. Planoak dokumentua sinatu duten idazleek sinatu beharko dituzte, gainerako dokumentazio idatzian egin den bezala. Nolanahi ere, teknikari eskudunak izango dira.

14) 1.3 planoak. Informazio planoak, gutxi gorabeherako ezarpen proposamena. Aerosorgailuen eta haien plataformen informazio gisa kokapenaren alternatiba hautatua baztertutako beste aukera baten azpitik grafiatuta geratzen da, eta, beraz, nahasgarria da. Gainera, laukizuzen berde bat agertzen da legendan parke eoliko gisa agertzen dena, eta ez dirudi bat datorrenik plataforma eta aerosorgailu bakar batekin ere; beraz, hori guztia argitu egin beharko da.

15) 1.6 planoak. Informazio planoak – egungo hirigintza antolamendua. Plan bereziaren eremua sartuko da (azpiegitura elektrikoa eta aerosorgailuak ezartzeko zona).

16) Antolamendu planoek eskala egokia erabiliko dute, bereziki eraikuntza garrantzitsuak egiten diren eremuetan, hala nola plataformak, aerosorgailuak edo SET, 2.1 serieko planoetan gutxienez, eta 1/5000 eskalan edo eskala handiagoan.

17) Plan bereziaren informazio- eta antolamendu-planoetan, gaur egun izapidetzen ari diren Dulantziko eta Bernedoko HAPOei dagozkienak sartuko dira, behar bezala justifikatzeko.

Zazpigarrena. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, honako hauek xedatutakoaren arabera: Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Araua; Arabako Foru Aldundiko sailak 2019-2023 legegintzaldirako finkatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretua; eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretua.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onespina ematea AIXEINDAR SAK formulatutako Azazetako parke eolikoaren plan bereziari.

Seigarren oinarrian adierazitako zuzentzeko alderdiak ez dira funtsezkoak; beraz, behin-behineko onespenerako dokumentuan zuzenduko dira.

Bigarrena. Hasierako onespenaren dokumentua eta ingurumen azterlan estrategikoa jendaurrean jartzea, Araban zabalkunde handiena duen edo duten egunkarian edo egunkarietan eta ALHAOn argitaratuz, hiru hilabeteko epean, azken argitalpenetik hasita.

Jendaurrean jarritako dokumentazioan, hasierako onespen dokumentuaren laburpen exekutibo bat dago, bai eta ingurumen azterketa estrategikoaren laburpen ez-tekniko bat ere.

Hirugarrena. Hasierako onespenaren dokumentua, ingurumen azterketa estrategikoarekin batera, kontsulta egitea eragindako administrazio publikoei eta alde aurretik kontsulta egin zaien pertsona interesdunei, hiru hilabeteko epean, aipatutako azken argitalpenetik hasita.

Laugarrena. Eraginpeko toki erakundeei entzunaldia ematea, hiru hilabeteko epean, adierazitako azken argitalpenetik aurrera.

Bosgarrena. Hasierako onespenaren erabakia lurralde aldetik eragindako administrazio bazarrei jakinaraztea, txostena egin dezaten hiru hilabeteko epean, aipatutako azken argitalpenetik hasita.

Seigarrena. Hasierako onespenaren erabakia jakinaraztea sektorean eskumenak dituzten administrazio publikoei, jakin zezaten eta txostena egin dezaten.

Zazpigarrena. Hasierako onespenaren erabaki honen aurka ezin da administrazio errekurtsorik edo administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri, plan berezia onartzeko prozeduraren barruko izapide egintza bat delako.

Hasierako onespenaren dokumentua, ingurumen azterketa estrategikoarekin batera, interesdunen eskura egongo da Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren bulegoetan, jendearen harrera ordutegian, eta <https://web.araba.eus/es/urbanismo/planes-especiales-parques-eolicos> web orrian.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 29a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO